


Ibaiek urik ez dute, ez soberan ezta faltan ere. Diren bezalakoak dira: konplexuak, dinamikoak eta askotarikoak.

Giza gorputzeko odolak bezala, urak ibaiari bizia ematen dio, eta ezinbestekoa da ibaien ekosistemei eusteko. Baina ibilguan zehar dabilen ur kopurua ez da beti bera eta urtaroaren zein euriteen arabera aldatu egiten da.



Ez dut urik faltan!

Euriteak amaitutakoan, emaria gutxitu egiten zait. Ohikoa hau ere bai.




Ez dut urik soberan!

Euriek nire emaria handitzea eragiten dute. Maiztasun baten barruan gertatu ohi dena da.



IBAI BERA NAIZ

Ura garraiatzeaz gain, sedimentuak, elikagaiak, lokatzak, hareak eta errekarriak garraiatzen ditut, guztiek ere ibai ekosistema elikatzen dutenak.



Nire jomuga: itsasora heldu, estuario eta deltak elikatzeko, hondartzak biziberritzeko eta itsasoko bioaniztasunari eutsi ahal izateko beharrezko diren gatz eta elikagaiak eskaintzeko.

